



3 EMAKUMEAK

Emakumeen eguna asteburuan ere bai

“Las Siete Vidas del Gato” antzezlanaren izan zen ikusgai ostiralean eta larunbatean berriz, bazkari berezia antolatu zuen herriko emakume talde batek.

4 DANTZA

Act of God lana martxoaren 16an

Asier Zabaleta dantzariaren Erta taldeak Act of God erlijioaren inguruko lana eskainiko du Asier Zabaleta dantzariaren Erta taldeak martxoaren 16an kultur etxean. Ander Lipus aktorea, Xabier Erkizia musikaria eta Harkaitz Cano idazlea arduratu dira dramaturgia, musika eta hitzez.

5 ELKARTASUNA

Haren Alde GKEren elkartasun ekitaldia kultur-etxean

Haren Alde GKEak antolatuta, Alboka abesbatza, Joserra San Sebastian, Kike Biguri eta Elena Bugeo artistek kontzertuak eskaini zituzten. Bertan lortutako diru-sarrerak Haren Alde Dominikar Errepublikan, San Cristobal eremuan duen osasun proiektu batera bideratuko dituzte.



Greba orokorrerako deia

Buruntzaldeko ELA eta LAB sindikatuek martxoaren 29an greba orokorra egiteko arrazoiak azaldu zituzten ostiralean egindako prentsaurrekoetan

Buruntzaldeko ELA eta LABek eskualdeko herritarrei greba orokorra babesteko eskaera egin diete. Ostiralean eskainitako prentsaurrekoetan sindikatuetakordezkariek greba egiteko arrazoiak azaldu zituzten eta hurrengo asteetarako prestatu dituzten mobilizazioen berri eman zuten. LABeko kideek prentsaurrekoaren ostean, kontzentrazioa egin zuten Lasarte-Oriako udaletxe aurrean.



LABeko kideek ostiralean kontzentrazioa egin zuten Lasarte-Oriako Udaletxearen aurrean.

Buruntzaldeko LAB eta ELA sindikatuek ostiralean prentsaurrekoak eskaini zituzten martxoak 29ko greba orokorra dela eta.

LABek Lasarte-Oriako Villa Mirentxun eskaini zuen prentsaurrekoan, Jon Martin eta Javier Hernandezek Estatuko gobernuak onartu duen lan erreformak langileria osoari eragingo diola eta ondorioa “langileriaren lan harremanak eta denon bizi baldintzak orokorrean kaskartzea” eragingo duela azaldu zuten.

LAB-en ustez irtenbidea burujabetasun politiko eta ekonomikoa litzateke, “Euskal langileria justizia sozialean oinarritutako Euskal Herria eraiki behar du, estatutik datozen erreforma, murrizketa, inposaketa eta ukazioen gainetik”.

ELA

ELAK, berriz, Hernaniko egoitzan egin zuen agerraldia. Honetan, lan erreforma lan eta gizarte eskubideen aurka

eginiko erasorik bortitzena dela azpimarratu zuen, “aspalditik datozen erasoen gehigarri bat da”.

ELA sindikatuko ordezkariak azaldu zuten, “eskubideen urraketa honetan, agintariak gastu sozialaren aurka jo dute, makina bat jende langabeziara eta pobrezia kondentatuz. Bien bitartean, politika fiskala bidegabeaz baliatzen dira abertzaren enpresa handi, banku eta ekonomialarien pribilegioak mantentzeko”.

Elkartasun politiken alde agertu zen sindikatua eta aspalditik alternatiben alde borrokan daudela azpimarratu zuen.

Ekimenak

Honela, martxoaren 29ko grebara deialdia egin zuten bi sindikatuek eta eskualdean egingo diren beste ekimenen berri eman zuten.

LABek martxoaren 23an,



ELAko ordezkariak prentsa aurreko agerraldia egin zuten Hernaniko egoitzan.

19:00etan Lasarte-Oriako Okendo plazatik aterako den manifestazioa antolatu du eta martxoaren 27an Hernanitik hasita eskualde osoan igaroko den kotxe karabana.

Era berean, herrietako eragile sozial eta politikoekin harremanetan jarri direla ere aurreratu dute, martxoaren 29an grebari babesa emateko

ekimen eta mobilizazioak antolatzeko.

ELAK ere kotxe karabanak, ordezkarien batzar orokorrak, herri batzarrak... antolatuko ditu. Honela, herri batzarrak martxoaren 21ean egingo dutela aurreratu zuten, 10:00etan eta 18:00etan honetara edozein herritar gerturatu daitekeela aipatu zuten.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Inskripzio epea zabalik!

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

- Arrasate MARTXOAK 15 osteguna, 17:30
- Ordizia MARTXOAK 24 larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

- Onati MARTXOAK 24 larunbata, 11:00
- Irun MARTXOAK 31 larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

- Donostia MARTXOAK 17 larunbata, 10:30

Adituak dio



Xabier Amadoz
Sistema Informatikan
Ingeniaria

Appleen azkena

Appleek Ipad 3a aurkeztu du. Aurrekoarekin alderatuz, bi datu azpimarratuko nituzke. Pantailaren erresoluzioa asko handitu da, (2048x1536) tamaina mantenduz 9.7 pulgada. Ondorioz pantailaren definizioa eta garbitasuna nabarmen hazi dira. Bigarren ezaugarria kamerak, 5MP erresoluziokoa, auto-fokusa, infragorri filtroa eta 1080P erresoluzioko bideoak grabatzeko gaitasuna du.

Konexio eta prozesagailuari dagokionez, aurreko A5 prozesagailutik, A5+rako saltoa egin du. Hobekuntza egon da, baina ez espero zitekeena, 2 nukleoeko prozesagailua izaten jarraituko du eta konpentziak 4 nukleoeko prozesagailuak eskaintzen ditu jadanik. Prozesagailu grafikoan aldiz, eboluzio nabarmena 4 nukleoeko GPUa, gailuari inoizko ahalmen grafikoa ematen diona da. RAM memoriaren zenbatekoa den ez da kaleratu, baina adituaren ustez 1GBkoa da.

Bukatzeko ezinbesteko gaia, konexioa. Wifi eta bluetooth 4.0 ranguko erdi motzerako eta modelo garestienek LTE sareetara konektatzeko aukera emango dute, gure telefono konpainiak zerbitzua ematekotan, teoriarik 73Mb/s abiadura lortuko genuke, etxeko ADSLaz lortu daitekeena baino handiagoa.

Hilaren bukaeran izango da salgai. Diseinu ona erabilgarritasun handiarekin bilatzen baduzu eta Appleen gain prezioa ordaintzeko gaitasuna baduzu, aurrera. Bestela, badira merkatuan, pantaila hain ona izan gabe pareko potentzia duten gailuak, baita hobeak eta merkeagoak direnak ere.

Hedabide txikiak sarean

Txintxarrik baditu hainbat erronka askotan gure orrialde hauetan idatzi moduan. Batez ere orain arteko gure bidea euskarri honetan garatu dugu, hau da, paperean. Ahal bezain lan txukun eta hobereana eginen saiatu gara urte guzti hauetan baina garaiki aldatu egin dira. Testuinguru hedabide handi zein txikiengatik, erabat aldatu da eta eszenatoki berri horretan kokatzen asmatu behar dugu. Lagun batek ez oso aspaldi esaten zigun, Facebooken perfila ez izatekotan egun ez zinela existitzen eta gehiegi esatea iruditzen bazaigu ere, arrazoirik ez zaio falta.

Sare sozialak, web orri polita, azkarra eta erakargarria behar dira; beti ere, eduki interesgarriekin. Horrekin batera bideoak, beharrezko euskarria direnak egungo gizaratean. Web

orri irekia eta eztabaidarako gunea daukana beharrezkotzat jotzen dugu, baina herritarrek ba al dute interesik albisteak hainbeste jarraitu eta bide batez, euren iritzia gune hauetan uzteko? Iruzkinen atala martxan dugunetik, ez dira herritar asko animatu honetan bere hitzak uztera nahiz eta atal hau izan gehien eskatutakoa proposamenak jasotzerako orduan. Denborarekin hau aldatuko delakoan gaude, Txintxarri herriko gaien eztabaida-gune izatea ere nahi dugulako.

Ari gara, bide eta testuinguru honetan leku sendoa garatzen, baina noski tresna asko eskura izateak ere baditu bere arriskuak, batez ere medio mugatuak ditugun hedabideontzat. Lan talde beraren zereginak biderkatu egin baitira. Hala ere, indartsu dihardurgu zuen artean tarte bat egiteko lanean.

Hitz eta pitz

Teknologia berrien erabiltzaile sutsua al zara?



Marta Notario

Teknologia berriak erabiltzen ditut. Internet telebistakoz gauzak edota serieak ikusteko erabiltzen dut normalean. Baita bidaiaren bat egin nahi badut aukerak eta gauzak begiratzeko. Mugikorra what'up-rengatik ere asko. Beharren arabera erabiltzen ditudala iruditzen zait hala ere, ez nago beti hauen menpe. Erabilgarria den mugikorra daukat, ez azkenetako.



Consuelo Bombin

Ez dut mugikorra erabiltzen, kanpora noanean bakarrik gogoratzen naiz eramateaz, oraindik fijoia nahiago dut. Bidai batera noanean bai eramaten dut, alabekin hitz egin ahal izateko. Oso aurreratuak dira niretzat gailu hauek. Ez naiz garapenaren aurkakoa baina ni ez naiz moldatzen. Alabak trebeak dira Interneten eta ibiltzen dira, baina nik ez dut erabiltzen.



Jose Manuel Nieto

Nahiko juxtu nabil teknologia berriekin. Beharrezkoak ditudan gauzetarako bakarrik erabiltzen ditut. Etxean ordenagailua eta Internetarako konexioa daukagu. Interneten maiz sartzen naiz albisteak ikusteko baina nire mugikorra esaterako, zaharretakoa da. Aldatu nahiko nuke eta smartphone bat hartu baina ez dut oraindik egin. Tabletak ere ezagutzen ditut eta interesgarriak dira.



Johan Acsante

Ez ditut asko erabiltzen. Etxean ez daukagu Internetarako konexiorik eta mugikorrak ditugu, baina ez dira modernoetakoak. Hauek deitzeko eta mezuak bidaltzeko besterik ez ditugu erabiltzen. Gainera, krisi egoera honetan etxean ezin ditugu luxu horiek erosi. Ez daukat lanik eta emazteak bakarrik egiten du lan. Gastuak ahal neurrian behintzat, murriztu behar ditugu orain.

Iruditan



F.Galardi.

Telefono zentralita herrian zegoeneko

XX.mendearen hasierako argazki honetan emakume honek zer egiten duen ere ez dute jakingo irakurle askok.

Telefono mugikor ahalduen garai honetan, ahaztuta ditugu dagoeneko telefonoaren hastapenak eta honekin batera gure aiton-amonenen garaiok komunikatzeko moduak. Lasarte-Orian esaterako herri eta hiri guztien antzera bazen telefono zentralita ikus daitekeenez. Honen funtzioa? deiak batetik bestera pasatzea. Normalean emakumeak izaten ziren zentralita hauetan lanean, irudian bezala.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

EMAKUMEAREN EGUNA

Antzerki eta bazkaria Emakumeen egunaren harira

Martxoaren 8ko Emakumeen nazioarteko eguna borobiltzeko, ostiralean kultur-etxean "Las Siete Vidas del Gato" antzerkia eta larunbatean Xirimirin bazkari berezia egin zituzten herriko hainbat emakumek

Lan eta Lan Beti Lan antzerki taldeko kideek "Las Siete Vidas del Gato" antzezlan eskaini zuten ostiral ilunabarrean Manuel Lekuona kultur-etxean, martxoaren 8an izandako Emakumeen nazioarteko egunaren harira. Larunbatean berriz, herriko hainbat emakume bildu ziren Xirimirin antolatutako bazkarian eta kapela bana buruan jarrita, giro on eta aldarrikatzailean poteatu eta bazkaldu zuten. Bi ekitaldi hauekin Emakumeen nazioarteko eguneko ekitaldiei amaiera jarri nahi izan zieten.

Emakumearen nazioarteko eguna izaten da martxoaren 8a mundu osoan eta aurtengoan ostegun egunez tokatu bada ere, Lasarte-Orian astebururaino luzatu nahi izan dute aldarrikapena.

Horretarako, ostiral ilunabarrean "Las Siete Vidas del Gato" antzerkia izan zen ikusgai eta larunbatean berriz, eguerdiko poteo eta bazkari aldarrikatzaileekin Emakumeen nazioarteko eguna borobildu nahi izan zuten herriko hainbat emakumek.

Antzerki arrakastatsua

Bete-bete egin zegoen Manuel Lekuona kultur-etxea ostiral ilunabarrean "Las Siete Vidas del Gato" antzezlan ikusteko zain.

Lasarte-Oriako EPAn sortutako Lan eta Lan antzerki tailerreko neska-mutilak bikain aritu ziren euren antzezle dohainak erakutsiz.

Ordu eta erdi inguru iraun zuen antzerkian umorea eta suspensea maisuki nahastu zituzten Ana Miranda zuzendariaren esanetara aritu ziren Manoli Fernandez, Domi Muñiz, Ludi Cuesta, Mari Jose Gonzalo, Maite Crespo, Manolo Carballes, Jaione Aizpurua, Adolfo Perez eta Esperanza Garcia aktoreek.

Emakumeen bazkaria

Bestalde, larunbatean herriko hainbat emakumek bazkari ederra antolatu zuten Xirimiri elkartearen.

Aurretik ordea, herriko zenbait tabernetan barrena ibili ziren trikitixa eta pandero doinuekin herriko kaleak girozten.

Bitxikeria gisa, guztiak kapela koloretsu bana zermaten soinean eta bertan, eraso sexisten aurkakotasuna edota autodefentsaren aldeko aldarriak irakur zitezkeen.



Umorea eta suspensea nahasiz, antzerki interesgarria eskaini zuten Lasarte-Oriako Lan eta Lan antzerki tailerreko kideek.



Xirimiri Elkartearen bildu ziren herriko hainbat emakume martxoaren 8an hasitako ekintza aldarrikatzailei amaiera emateko.

Hip hop doinuak Siglo 20n



Kultur Kale zikloaren barnean, hip hop musika estiloari egokitu zitzaion astebukaeran herria girotzea. Larunbat ilunabarrean Zepequeño&Pelayo bikoteak kontzertu bizia eskaini zuten Siglo 20 tabernan.

Gauean berriz, DJ KA eta DJ SET musika pintxatzen aritu ziren taberna berean eta jende asko hurbildu zen saioak entzun eta dantzan egitera.

Zepequeño&Pelayo bikotea

Zuzeneko hip hop kontzertua

izan zen entzungai larunbat iluntzean eta bikoteak sekularo inprobisazio erakustaldia eman zuen DJ baten laguntzaz.

Mikrofonoa eskuan hartuta, lotsagabe aritu ziren elkarri zirika, hip hop estiloan ohiko den moduan.

Erretiratuen irteerak abian

Biyak bat elkarteko kideek urteko lehengo txangoa egin zuten otsailaren 21ean. Elkarteko kideek Irugurutzetako meatzak, Plaiandi eta San Markoseko gotorlekuak bisitatu zituzten. Giro ona izan zuten eta ederki gozatu zuten irteeraz. Hurrengo, Lizarra eta Iratxera izango da martxoaren 22an.

Goizean, Los Arcos herria, Valcarlos bodega eta Lizartza-

ko merkatuaz gozatu ahaliko dute izena ematen dutenek. Bazkaria Iratxe jatetxean izango dela eta bazkalostean, bingoa eta dantzaldia izango direla aurreratu dute antolatzaileek. Elkarteko bazkideek 34 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek berriz, 38 euro.

Izena emateko epea gaur, martxoak 12, 10:30ean hasten da.



Kaskoa eta guzti jarri behar izan zuten Irugurutzetako meatzetan.

“Act of God” ikuskizuna ostiralean

► Ertza taldeak erlijioaren inguruko lana prestatu du ► Harkaitz Canok moldatutako hitzen gainean egiten dute dantza ► Gaia “errespetuz” jorratu dutela aitortu du Asier Zabaletak

Asier Zabaleta dantzariaren Ertza taldeak Act of God erlijioaren inguruko lana eskainiko du ostiralean martxoaren 16an arratsaldeko 20:30etan kultur etxean. Ander Lipus aktorea, Xabier Erkizia musikaria eta Harkaitz Cano idazlea arduratu dira hurrenez hurren dramaturgia, musika eta hitzetaz, eta Asier Zabaleta dantzariak aurkezpenean nabarmendu zuenez, garrantzi handia izan dute lan honek aurrekoek baino “mimo handiagoa” eskatzen zuen eta.

Jon ALTUNA IZA

Ertza dantza taldeko Asier Zabaletaren ustez, jakina da erlijioaren gaiak hika mika sortu dezakeela, beraz hasieratik “errespetuz eta zintotasunez” landu dute, “guk geuk dauzkagun zalantzak umiltasunez eta haurren ino- zentziaz plazaratuz, besterik ez. Hala ere, zenbait lekutan izan ditugu erreakzio bitxiak, gaia bera tratatzea ez dute eta batzuek onartzen”.

Madrilen esaterako norbait altxa eta alde egin zuen areotik, eskenatoki ondoan zerbait esan eta gero. Act of God, esamolde juridiko ingelesa da, kontratuetan halabeharrez gertatzen den oro definitzeko erabiliena, “jainkoaren ekintza”, gertaera tragiko edo hondamen- di naturalak gertatzen direnean.

Lau dantzari

Zabaletak aurkezpenean azaldu zuenez “Saramagoren Cain liburua irakurri eta gero sortu zen ideia, gustatu zitzaidan umorez eta ironiaz jaungoikoari galderak egiteko duen ausardia” eta izpiritu hori irudikatzen saiatu dira Ertza taldeko Eneko Gil, Lorentxa Iturralde, Noemi Viana eta Asier Zabaleta dantzariak.

Gainera, dantza egitearekin batera testuak esan behar izan dituzte eta ahalegin berezia eskatu die horrek: “orain arte egindako ikuskizunen artean gehiena”. Asier Zabaletaren ustez: “dantzak oso biziak dira eta ez da erraza. Ikaragarri ikasi dugu Ander Lipusekin, bere laguntza ezinbestekoa izan da, mila ariketa eta teknika erakutsi dizkigu”.

Esan bezala, Harkaitz Canoren testuen dramatizazioa Ander Lipus aktoreak egin du “hilabete bat aritu gara bere- rikin lanean eta oso interesgarria izan da guretzat”, eta musika, aldiz, Xabier Erkizia. Bach-en musikak moldatu eta zenbait pieza original sortu ditu, “Soinu banda osoa Bach-ena da, baina atmosfera zehatzak sortu ditu”.

Harkaitz Canok asteazke- nean kultur etxean prentsaren

aurrean azaldu zuenez, bere lehen esperientzia izan da dantza talde batekin, baina asko gozatu du: “testu horiek nola landu dituzten, nola eskenaratu eta testura hori nola eman dioten ikustea gozagarria izan da. Gidoilarietaz asko erabiltzen den esaldia da paperak dena agoantzen duela, baina gero aktore batek etorri behar du esatera. Idazten duen pertsona batentzat ikasketa polita da beti, hitzen pisu atomikoa nola aldatzen den ikustea. Paperaren gainean pisu espezi- fikoak dauka baina gero esaten denean pisu hori handitu edo txikitu egiten da; beste oreka bat sortzen da erabat diferen- tea eta kasu honetan areago, dantza tartean dagoelarik”.

Lasarte-Oria dantzan

Dantza garaikidea bultzatzeko Eusko Jaurlaritzak martxan duen “Lasarte-Oria dantzan” egitarauaren barruan kokatzen da ostiraleko emanaldia. Aurten aukeran zuen ikuskizun- etatik hiru hautatu ditu Udalak Erketz dantza taldearen laguntzarekin eta beraz hiru dantza garaikide emanaldi izango dira. Lehenengoa, ostiralean 20:30ean izango da Ertza taldearen Act of God, eta beste biak idazkenez, azaroak 16 ostiralean Kukairen Oteizari Biraka eta 17an larunbat arratsaldean haurrentzako Elirale Konpainiaren Ninika.

Emanaldirako sarrerak lasarteoriasarean.org-n salgai daude 5 eurotan eta leihatilan gaurtik aurrera, 6 eurotan.

Boris Nogales Kultura Saileko zinegotziak asteazkeneko aurkezpenean adierazi zuenez, ez dute zalantzarik izan ikuski- zun hau ekartzea erabakitze- ran, “Harkaitz Cano idazle lasarteoriatarren hitzetan oinarrituta zela jakinik”.

Act of God irailen estreina- tu zuten Donostian, eta Madri- len, Andaluzian eta Bizkaian eskaini eta gero, Lasarte-Orian egongo dute, hemen, euskaraz. “Oso harrera ona izan du lanak orain arte, eta espero dut Lasar- ten ere gauza bera gertatzea” esan zuen Asier Zabaletak.



Boris Nogales Kultura zinegotziak, Asier Zabaleta eta Harkaitz Canorekin batera aurkeztu zuen emanaldia asteazkenean.

Harkaitz Cano Idazlea

“Enkarguzko lanak asko gustatzen zaizkit”

Asier Zabaleta dantzariak Harkaitz Canori eskatu zion Act of God ikuskizunerako testua idazteko. Honek azaldu digu sormen prozesuan bi abia- puntu izan zirela, Jose Sarama- go idazlearen Cain nobela batetik eta Ertza taldeko dan- tzariak prestatu zituzten testu batzuek, bestetik. “Jasotako iri- tzi eta apunte batzuk ideia sol- teak ziren, esanguratsua da beste asko galderak zirela... eta hortik abiatuta testu batzuk egin nituen, eta gero beraiek egin zuten aukeraketa”.

Gustura egin al zenuen lana?

Bai, enkarguzko lanak asko gustatzen zaizkit, bestela egin- go ez zenituzkeen gauzak egi- tera eramaten zaituztelako. Badauka horrelako derrigortze puntu bat baina desafio bat ere bada nolabait. Hau nahasketa bat izan zen, enkargua batetik, eta beraiek nahi zutena oso kontutan hartuta, neronen ikuspegia zein zen bestetik.

Asier Zabaleta dantzaria, Ander Lipus aktorea, Xabier Erkizia musikaria eta zu zue... talde bikaina dirudi, nolakoa izan da elkarlana?

Ander Lipusekin behin egon nintzen, ez nuen parte hartu entseguetan eta Xabier Erkizari dagokionez, adibidez lurrikara bat sortu du berak eta ikaraga- rria da, ez dakit benetan edo

brometan esan zuen, baina sukaldeko tenedore, mahai, aulkia eta abar, arrastaka erabi- lil. Oso momentu polita da. Talde majoa bildu du Asierrek, baina hori bere meritu da. Nik hitzak egin eta entsegu orokor batean egon nintzen.

Eginak dituzu poesia errezital- diak, baina hau beste gauza bat da, nola deituko zenioke?

Ez, poemarik ez dago. Horrela- koetan ez dut jakiten oso ondo zein izan jarri, artefaktu testua- lak-edo, zati batzuk dialoga- tuak dira, beste batzuk monologoak, beste batzuk erdi kantatu egiten dituzte... orduan ikuskizun baterako sortutako testuak dira, gero nolabaitko manipulazio bat egongo dela jakinaren gainean eginak; zati- txoak dira, komikoak ez diren hainbat sketch...

Honetaz aparte ikuskizun edo errezitaldi bat prest daukazu?

Bai, Beñat Barandiaran gitarra jolearekin prestatu dudun emanaldi bat da, “Sidekar arima” izena du, poemak dira. Beñatek oso estilo diferentek jotzen ditu gitarrarekin, fla- menkoa, heavy-metala,... oso bariatua da alde horretatik, eta funtzionatzen duten poema zatiak bilatu ditugu.

Hemen dantzarekin uztartu zara, zein lotura daukazu beste arte adierazpenekin, antzerkia, zinema, komikia,...

Aipatu dituzunen artean, harreman politena momentu honetan komikiarekin daukat, komikia delako zinema per- fektua, hau da, komikiko binetaren barruan agertzen den oro da gidoilari eta marrazkilararen arteko akor- dio baten ondorio. Aldiz, tele- bista edota zinea, gauza gehiegiren menpe daude.

Ari al zara zerbait egiten?

Iñaki Holgadoarekin “Piztia Otzanak” albuma atera genuen Xabiroi aldizkariaren barruan, bigarren istorio bat egin dugu elkarrekin, “Zebra Efectua”, eta orain museoe- kin zerikusia duen hirugarren album bat abiatuko dugu.

Zer moduzko kritikak jaso ditu Twist azken nobelak?

Pozik nago, jaso dudun *feed back*-a inoiz baino hobea izan da.

Zer esango zenieke herritarrei ostiraleko emanaldiari buruz?

Gozatzeko, aukera polita da eta: dantza, antzerki eta hitza elkartzen dituen istorio bat ikusiko dutela.



Elena Bugedo andaluziarrak bere ahots gozo eta naturaltasunarekin publikoa konkistatu zuen.



San Sebastianek bere obrak maisuki interpretatu zituen gitarra eta armonikaren laguntzaz.

Elkartasun ahotsak

► “Haren Alde” GK Eren lana bultzatzeko kontzertuak izan ziren larunbat arratsaldean kultur-etxean

Bost kontinentetako 20 herrialdetan baino gehiagotan egiten du lan Haren Alde gobernuz kanpoko erakundeak elkartasuna, giza eskubideak, justizia soziala, berdintasuna eta beste hainbat balore sustatuz. Euren lana ezagutzera eman eta bide batez euren proiektuarentzat finantzaketa lortzeko asmoz, kontzertu sorta polita eskaini zuten herriko zein kanpoko hainbat artistak larunbat arratsaldean Manuel Lekuona kultur-etxean.

Elkartasun doinu eta ahotsak entzun ziren larunbat arratsaldean kultur-etxean. Haren Alde GK Eri borondate osoarekin eta musutruk aritu ziren herriko Alboka Abesbatza, Joserra San Sebastian bakarlaria eta Elena Bugedo andaluziarrak besteak beste.

Albokaren doinu gozoak

Beste behin ere, herriko Alboka abesbatzak bere kalitatearekin

ren berri eman zuen, euren ahots zerutiarrekin, Haren Alderen lana lagundu nahi izan zuten.

Joserra San Sebastian ederki

Maitasuna erabili ohi du gaitzat Joserra San Sebastian bakarlari “lasarte-oriotarrak” bere obrak konposatzean.

Hala ere, erakutsi zuen maitasunaz gain, aitatasunari buruzko gai korapilatsuei buruz ere baduela zer esanik.

Gainera, detaile polita eduki zuen zendu berri den Manuel Lasarte bertsolariarekin, abesti bat eskaini baitzion.

Elena Bugedo artista

Malagatik Lasarte-Oriarainoko bidea Haren Alderen aldeko kontzertu bat emateko egin zuen artista andaluziarrak eta entzuleak erabat asebate zituen bere ahots zoragarri eta inprobisatzeko gaitasunaz.

Haren Alderen esker ona

Kontzertua ikustera etorri ziren guztiei esker ona adierazi nahi izan zien David del Valle mediku lasarteoriatarrek eta bereziki aipatu nahi izan zuen jendeak ematen dien laguntzarik gabe ezingo luketela euren proiektua aurrera eraman. Beraz, bihotzez eman zizkien eskerrak entzule guztiei.



David del Valle medikuak esker oneko hitzak izan zituen amaieran.



Albokak beste behin ere musika erakustaldia eman zuen zentzu guztietan.



Kike Bigurik monologo labur bat eskaini zuen eta jendearen algarak eragin zituen.

FUTBOLA.

Miriam Infante
Espainiako selekziara

Miriam Infante gazte lasarteoriatarra Estatuko 17 urte azpiko selekziarako deitua izan da eta Añorga taldean egiten ari den lana saritu dute era honetara.

Espainiako selekzioak martxoak 12tik 14ra, Las Rozaseko egoitza, egingo duen lan saioetarako deitu dute oraingoan herritarra.

Ez da lehenengo aldia Estatuko selekzioan lan egiten duena. 16 urte azpiko taldean izan zen eta 2010-2011 denboraldian, Herbeheretan edo Txekiar Errepublikan izan zen Europako 17 urte azpiko sailkapen txapelketetan parte hartu zuen.

Gainera, etorkizuneko jokalariek saritzen dituen Futbol Draft 2012 Sarietarako izendatu dute herriko kirolari gaztea.



Texas, koparen bila berriz ere

Hiru talde ditu Texasek aurten eta Erregionalek kopa irabazi nahi dute

2011-2012 denboraldirako hiru talde osatzea lortu du aurtengoan Texasek; kadete, jubenil eta Erregionalek mailan. Lehen bi taldeei mailara egokitzea kostatzen ari zaie, osatu berriak baitira bi taldeak. Bestalde, Erregionalek kopa dute begiz jota aurtengoan, aurreko urtean bezalaxe eta zuzen-zuzenean doaz euren helburua lortze bidean, 10 partidutik 8 irabazi baitituzte eta euren multzoko lider baitoaz.

Jon ALTUNA EGITEGI

Aurpegia eta ifrentzua ezagutzen ari da Texas denboraldi honetan. Batetik, erregionalek kopa irabazteko hautagai nagusi dira, baina jubenil eta kadetei mailara egokitzea kostatzen ari zaie.

Kadeteen lehen garaipena

Kadeteek Urnieta K.E.ren aurkako partidua 2-1 irabaztea lortu zuten larunbat goizean Michelingo berdegunean jokatu zuten kopako 8. jardunaldiari zegokion partiduan.

Honela, euren lehen hiru puntuak eskuratuta, Urnieta-rekin berdinduta daude orain sailkapeneko azken postuan, bakoitzak partidu bat irabazi-

ta, hiruna punturekin.

Jubenilak ezinean

Jubenilak burua ezin altaturik dabilta denboraldi honetan, eta larunbatean ere zaplazteko handia jaso zuten Touring-en aurka kopako 9. jardunaldian 0-8 galduta.

Hala ere, aurten sortu berria da taldea eta hurrengo urteetan taldea osatzea lortuz gero, goranzko bidea hartzea espero dute arduradunek.

Erregionalek geldiezin

Asteburuko jardunaldian Pasaia K.E.ren aurka etxetik kanpo 3-2ko emaitzarekin galdu bazuten ere, lider jarraitzen dute oraindik lasarteoriatarrek, sendo eta aurtengoan ere koparen bila joateko asmoa dute.



Kopan lehenengo garaipena lortu zuten kadeteek (goian) eta jubenilek galdu egin zuten.

MENDIA.

Iraupen eskiaz gozatzeko

Aralarreko mendiak, Finlandia eta Errusia arteko basoak... irudi paregabeak ikusi ahal izan ziren asteazkenean Manuel Lekuona kultur-etxean Poto Gorrotxategi eta Belen Eguzkizak eskaini zuten "Baso txuriaren babesean" proiektzioan.

Ostadar SKT-ko Mendi sailak antolatutako saioan, Gorrotxategi eta Eguzkizak haien zaletasuna erakutsi zuten, iraupen eskia.

Probak

Gorrotxategi eta Eguzkizak hitzaldi aretora hurbildu ziren herritarrei azaldu zieten, gogoko dute negua iristean aralarreko mendatera joan eta iraupen eskia egitea. Bertan haiek aukeratutako bideak egiten dituztela eta askotan ilundu arte egoten direla ere aipatu zuten.

Bestalde, bikotea iraupen eskiko proba ugari egiten ditu, baina azaldu zuten bezala hauek ez dira lehiaketa



Finlandia eta Errusia arteko etapetako probako irudiak ikusi ahal izan ziren asteazkenean.

tak edo proba puntuagarriak. Asteazkeneko proiektzioan, Finlandia eta Errusia artean egiten den probako irudiak ikusi ahal izan ziren.

"Proba honetan guztia dago antolatua, eskien marka ere egina dago. Nahiez gero etapa utzi eta autobusa har dezakezu..." azaldu zuten.

Ekintza ugari

Hau izan da Ostadar SKT-ko Mendi sailak bere berrantolatketaren ostean egin duen lehenengo ekintza irekia. Hemendik aurrera ekimen ugari egitea aurreikusten du eta horren guztiaren berri, ostadarramendian.blogspot.com orrialdean egongo da.

TENISA.

Lizaso Gipuzkoako txapelkun

Oihane Lizaso lasarteoriatar gazte infantil mailako Gipuzkoako txapelkun da.

Martxoaren 1ean, Donostiako Tennis elkarte Errealean jokatu zuen finala Alicia Gonzalez-en aurka.

Bi jokalariek Donostiako Tennis elkarte Errealeko kideak dira eta iaz ere finalean izan ziren. Orduan Lizaso lasarte-

teoriatarrek bigarren postua eskuratu zuten.

Baina aurten arantza kendu eta partida azkarrean, 6-1 eta 6-0, Gipuzkoako garaikurra lortu zuen Oihane Lizasok.

Orain, hilabete amaieran Irunen jokatu den Euskadiko txapelketa prestatzen ari da Lasarte-Oriako gaztea.



Alicia Gonzalez eta Oihane Lizaso herritarra lortutako sariekin.

LIZASO FAMILIA

Agenda

Osteguna 15, Manuel Lekuona kultur-etxea, 21:30ean



Medikuntza eta bizitzako mamuak

Okeno Zinema taldearen eskutik Pedro Almodovar zuzendariaren "La piel que habito" filma ikusgai izango da. Bere emazteak kotxe istripua izan eta gorputza erre zitzaionetik Robert Ledgard kirurgialari plastikoak urteak egin ditu zauririk izan ezin duen azal tipo berri bat sortzeko. Orain norbait behar du hau probatzeko. Gaztelaniaz. Sarrera, 4,40 euro.

Antzerkia

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 16, 22:30ean

Ion Martinez eta Saioa Royok "Ispilua" antzezlan eskainiko dute. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 24, 18:30ean

"Aitona Matias" haurrentzako txo-txongilo emanaldiaz gozatzeko aukera. Sarrera online, 3 euro; leihatilan, 3,40 euro. Euskaraz.



Lasarte-Oria Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 18, 17:00etan

Haurrentzako zinearen barruan, "El Cascanueces" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.

Igandea 18, 19:00etan

Helduen zinema atalean, "La piel que habito" filma ikusgai izango da, Okeno Zinema taldearen eskutik. Gaztelaniaz. Sarrera, 5,50 euro.

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Osteguna 22, 21:30ean

Laburbira film laburren zirkuitua herria iritsiko da, honetan 8 film labor eskainiko dira.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 25, 17:00etan

Haurrentzako zinearen barruan, "Fucsia, la minibruja" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.



Musika

MENDI KAFE ROCK

Ostirala 16, 20:00etan

The Back Tracks taldearen kontzertua, Kultur kalea zikloaren barruan.

ABEND KAFE-ANTZOKIAN

Ostirala 16, 23:45ean

"Las culebras" eta "Kalean" taldeen doinuak entzun ahal izango dira Rock gauean. Sarrera aurretik 10 euro eta egunean bertan, 12 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 30, 19:00etan

Lasarte Oria Musika atalaren barruan, "Kantalimjazz" taldearen kontzertua.

Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 16, 20:30ean

Lasarte Oria Dantzan Zirkuituaren barruan, Act of god dantz ikuskizuna eskainiko da. Harkaitz Cano lasarteoriarren testuan oinarrituta dago. Sarrera online, 5 euro, leihatilan, 6 euro.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 24, 18:00etan

Inguma taldeak "Bidaian" kontaketa eskainiko du.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Martxoan zehar

Rudy artistaren "Ibilbidea Euskal herrian zehar" margolanen erakusketa ikusgai dago. Koadroak salgai daude.



Herritarren txokoa

AEK-ren saria

AEK-euskaltegiek antolatutako "urtebetetz eta hilean 1.000" zozketa bereziaren zerbaki sariduna asteazkenean ONCEren zozketan ateratakoa izan zen 34.184.

Honi egokitu zaio urtebetetz hiler 1.000 euro jasotzearen saria. Hala ere, zerbakiaren jabea azalduko ez balitz, AEK-k jakitera eman duenez, apirilaren 3-an berriz ere ONCE-ren zerbakia izango litzateke saritua. Hori dela eta, ordura arte zerbakiak gortdeta edukitzea gomendatzen da.

Marrakzi eta pintura klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiralean 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, urrezko pultsera, urrezko belarritakoa, neskaren esku-muturreko bat, hiru betaurreko gra-

duatu, bizikleta bat, bi telefono mugikor eta zamarra beltz bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Iradokizunak edo kexak Udalari

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizunak, kexak edo eskaerak egiteko orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbidera bidali behar da orrialdea.

Hirigintzako departamentua Ganbo kalean

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

Hemeroteka

Duela 1004 ale

Intsumisioaren gaia jorrazten zen Txintxarriren 5. zenbakian. Mugimentu anti-militarista handia zegoen Euskal Herrian eta hainbat mobilizazioa izan ziren derrigorrezko zerbitzu militarren eta intsumisioaren aurka egin ziren epaiketen aurka. Erreportajearen helburua mugimenduari buruz berri eman eta objektore eta intsumisioaren arteko ezberdintasunak azaltzen zen.

Orduan, zerbitzu militarra egitea derrigorrezkoa zen eta soldaduskan 9 hilabeteko instrukzioa egiten zuten gazteek. Beste aukera, kontzientzia eragozle izan eta 12 hilabeteetan gizarte zerbitzuak egitea zen.

1988. urtean kontzientzia objektoreekin bat intsumisio eta kontzientzia eragozpenaren mugimenduak sortu zirela azaltzen du erreportajeak. Gipuzkoan, zerbitzu militarri edo gizarte zerbitzuei uko egitegaik 600 intsumisio epaiketaren zai zeudela adierazten da erreportajearen eta horien artean, Lasarte-Oriako 35-36 gazte.

Intsumisioek gizartearen babesa izan zuten eta mobilizazio ugari egin ziren. Gure herrian, esate baterako, Aifia emakume taldeak objeziorako instantzia erdua banatu zuen. Honela batetik emakumeak ere kontzientzia objektore zirela jakinarazi eta bestetik emakumeak ejerzitoan sartzearen gaitzespena adierazi nahi zuten.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Gaizka Ormazabal Atleta

“Adrenalina askatzeko modu bat da atletismoa”

200 metroko proban lehiatu zen gaztea Espainiako txapelketan 23:11 denbora eginez. LOKE taldea aurten ematen ari den maila onarekin, babesle baten beharra ikusten du.

Herriko atleta gazteak denboraldi hasiera bikaina burutu du. 200 metroko proban lehiatu da amaitu berri den pista estaliko denboraldian, eta otsailaren 5ean Donostiako belodromoan egindako denboraren ostean (22:75), Sabadell-en otsailaren 24 eta 25ean jokatu ziren Espainiako txapelketetarako txartela erdietsi zuen. Hala ere, ez zen egindako lanarekin oso gustura geratu eta orain abiatuko den aire libreko denboraldian, barnean geratu zaion arantzatxoa atera nahiko du 400 metro hesidunetan.

Jon ALTUNA EGITEGI

Bost hilabete gogor aurretik ditu aurretik Gaizka Ormazabalek, baina argi dauka zer gustatzen zaion, argi du zerekin gozatzeko duen, korrika egitea da bere pasioa, kirola egitea oro har. Baina kirolaz gain, erdi mailako ikasketak burutzen ari da Errenterian eta udaran umeekin begirale ere aritzen da.

Nola joan zitzaizun otsaileko Espainiako pista estaliko txapelketa?

Espainiako txapelketara nahiko forman iritsi nintzen, puntu onean eta marka onarekin gainera. Baina Sabadell-en ezin izan nuen neure onena eman. Izan ere, Donostiako belodromoko pista desberdina da, kurba itxiagoa eta peralte handiagoa dauzkagu hemen eta Espainiako Txapelketako pistak peralte gutxiago zeukanez, korrika egiteko garaian nabaritu egin nuen, kurba bukacarran kanporantz joaten bainintzen hamarren batzuk galduz. Ondorioz, ezin izan nuen esperotako denbora egin.

Oro har, Espainiako Txapelketara joan ginen gipuzkoarrok marka okerragoak egin genituen arrazoi horrexegatik. Nire kasuan, 22:75eko markarekin joan nintzen eta han 23:11 segundotan osatu nituen 200 metroak. Egia da Espainiako Txapelketaren urduritasuna eta esperientzia falta nabaritu ditudala, baliteke horrek ere eragina izatea.

Nola planteatu duzue denboraldi zure entrenatzaile Oscar Goikoetxeak eta zuk?

Denboraldi hasieran bildu egiten gara. Lehiatu nahi ditudan lasterketak zein diren gal-

detu eta libre ditudan datekin bat etor daitezen saiatzen gara.

Atletismo denboraldia bi zatitan banatzen da, pista estaliko denboraldia eta aire librekoa. Beraz, Irailean aurre-denboraldia egiten dugu, gero, martxora arte pista estalian lehiatzen gara, ondoren deskantsu pixka bat hartzen dugu eta apiriletik aurrera, abuztura arte aire libreko denboraldian lehiatzen gara. Denboraldia amaitzean, hilabete edo hilabete eta erdiko oporrak hartzen ditugu eta orduan aprobetxatzen dugu lagunekin atera eta bizitzaz disfrutatzeke.

Beraz, aire irekiko denboraldia hasiko duzu orain, ze asmo edo helburu dituzu hurrengo hilabeteetarako?

Hurrengo bost hilabete hauetan buru-belarri entrenatuko dut, betiere aire irekiko Espainiako txapelketari begira, 400 metro hesidunak prestatu nahi baititut eta bide batez Bidasoako taldearekin (LOKE taldea Bidasoaren filiala da) joan nahiko nuke Espainiako lehen mailako ligako hiru jardunalditan parte-hartzera, Espainiako puntu desberdinetara. Horretaz gain, Espainiako “promesa” txapelketan ere lehiatu nahiko nuke.

Zein entrenamendu sistema jarraitu duzue?

Entrenamendu sistemari dagokionez, astero gutxi gora behera antzekoa egiten dugu. Astean bost egunetan joaten naiz entrenatzen, egun batean pesak, beste batean hesiak, hurrengo egunean abiadura eta azkenik, fondoa eginez osatzen dugu entrenamendu sistema. Egunero ordu eta erdi inguruko entrenamenduak burutzen ditut, batzuetan luzeagoak ere bai.



Bateragarria al da 200 metro eta 400 metro hesidun probak denboraldi berean egitea?

Bai, bada. Izan ere, bost hilabete luze daukat orain aurretik eta hilabeteotan fondoa egiten dugunez ez dut egokitzeko arazorik izango.

Ikasketak atletismoarekin uztartzeko arazorik bai?

Ez, ez dut arazorik. Orain erdi mailako hotz eta bero ikasketak egiten ari naiz Errenterian, baina denbora ondo antolatzen baduzu bi gauzak egin ditzakezu arazorik gabe.

Bizkarreko lesioekin hasi zenuen denboraldia... Zer moduz, osatu al zara?

Kotxe istripu bat izan nuen denboraldi hasieran eta entrenatzeari utzi behar izan nion boladatxo batez. Baina orain ondo nago, osatu naiz eta bestelako lesio muskularrak izan ez dudanez, denboraldi ona daramat zentzu horretan.

Non aurkitzen duzu egunero entrenatzena joateko motibazioa?

Adrenalina askatzeko modu bat bezala ikusten dut atletismoa, nahiz eta markak hobetzeak eta Espainiako Txapelketetara joateko lehiatzeak ere motibatzen nauen.

Txapelketa edo frogaren bat hasi aurretik nerbioak kontrolatzeko sistemaren bat erabiltzen al duzu?

Aurreko urteetan edozein lasterketa hasi aurretik oso urdu-ri jartzen nintzen, tripak

nahastu egiten zitzaizkidan. Aurten ordea, beste filosofia batekin hartu dut denboraldia, egiten dudana disfrutatzea dut helburu, garai bateko presiorik ez diot jartzen nire buruari eta funtzionatu didala esango nuke, emaitza onak ari bainaiz jasotzen.

Entrenatzaile lanetan aritzen zara, umeekin. Zer nolako esperientzia da?

Oso ona, asko gustatzen zait umeekin egotea eta udalekue- tan begirale lanetan aritzen naizenez, badakit eurekin kontaktuan egoten. Aurten benjamin eta alebin talde- txo bat zaintzen dut. Nire helburua da umei erakustea atletismoa ez dela bakarrik korrika egitea, atletismoaren barnean modalitate desberdinak daudela irakasten saiatzen naiz eta batez ere umeek kirola egin dezaten eta ondo pasa dezaten nahi izaten dut.

Aurten LOKE zure taldea emaitza onak ari da izaten kategoria guztietan. Zein da emaitza on horiek izatearen arrazoiak?

Taldeko giroa oso ona da. Taldekide guztien arteko harremana bikaina da, nahiz eta adin-tarte desberdinekoak garen. Elkarrekin dugun harreman onak entrenamenduak erraztu egiten ditu eta Oscar Goikoetxea entrenatzailea lan ona egiten ari denaren seinale da hori.

Bestalde, aipatu nahiko nuke ez dugula babesle baten laguntzarik eta horrek kanpo-

ra bidaiatzera joatea zailtzen digula. Gainera, azken urteotan maila ona ematen ari da taldea, marka apartak eginez, eta pena da lan bikain hau inork ez aintzat hartzea babes ekonomikoa emanez.

Atletismoa beste kirol batzuk adina baloratuta dago? Ba al du beste kirolek ez duten zer-bait? Buruarentzat kirol gogorra dirudi...

Norbanako kirola izanik, hanka sartzeen ondorioak zuk bakarrik jasaten dituzu, bakarrik zaude arriskuaren aurrean, zuk badakizu zertan zabiltzan, zenbat entrenatzen duzun egunero... Gauzak ondo eginez gero, emaitzak iristen dira azkenean. Baina gauzak gaizki ateraz gero, errudun bakarria dago, zu zeu.

Presioa ere izaten da atletismoan, noski, zuk zeure buruari jarritakoa, baina presio pixka batek ez dizu inoiz kalterik egiten, neurrian bada behintzat. Hori bai, denboraldi amaieran neke psikologiko eta fisikoa zein deskantsu falta nabaritzen ditut eta oporrak oso gustura hartzen ditut aire libreko denboraldia amaitzean, pilak kargatzeko.

Atletismoa gain, beste hainbat kirol ere egin izan dituzu, futbola, txirringarritza, mendia... Kirolik gabe bizi ezin den horietakoa al zara?

Hori da, mugimenduan egon gabe ezin naiz bizi, kosta egiten zait etxean ezer egin gabe egotea, oso aktiboa naiz eta ez naiz geldirik egoteko jaio.